

Egungo egunean egiten diren huts nabarmenak (I)

Elaberriak, egunkariak eta lan ofizialak irakurri ondoren, egungo egunean, besteak beste, hemengo huts nabarmenok egiten dira. Ez da hau laborategiko gramatika. Azken 28 urte honetan zazpi probintzietako 22 baserritan nabil (Bizkaiko Zeanuritik hasi eta Zuberoako Larraineraino) eta hemengo hutsak nola zuzendu behar diren baserritarrek beraiek esan didate. Guztira nik 50ren bat huts nagusi aipatuko nuke. Hemen 20 bakarrrik doaz. Utz ditzagun besteak hurrengo zenbakirako.

1 Abstraktoegi mintzo gara, gaztelerak eraginda. Jo errezero.

* Gaizki: *Maiztasun gehiagorekin jokatu behar dugu* (Tenemos que jugar con más frecuencia).

Lurgintza-alorrarentzako laguntzako bateango egitumua (Plan de ayudas al sector agrario).

Ongi: *Sarriago jokatu behar dugu.*

Lurgintzan ari direnentzako laguntza.

2 "Bat" gehiegitan erabiltzen da. Euskaraz "bat" eskuarki numeral hutsa da.

* Gaizki: *Isiltasun bat zegoen. Haize gogor bat zebilen.*

Ongi: *Isiltasuna zen. Haize gogorra zebilen.*

3 "Bere" espainieraz baino bakanago erabiltzen da euskaraz. Euskaraz "bere"/"besteen" jazargoan dago.

* Gaizki: *Pepek bere zigarroa erre zuen eta...* (Pepe se fumó su cigarrillo y se acostó).

Ongi: *Pepek zigarroa erre eta ohera joan zen. Pepek bere zigarroa erre zuen; ez zuen lagunarena nahi* (jazargoan).

4 Euskaraz "berri" "zaharra"ren kontrakoa da.

* Gaizki: *Retegik tanto berri bat egin du.*

Ongi: *Retegik beste tanto bat egin du/tanto bat gehiago egin du. Etxe zaharra bota eta berria egin dute.*

5 Ez nahas "asko" eta "handia".

* Gaizki: *Bero asko.*

Ongi: *Bero handia. Sagar asko eta handiak daude sagardian.*

6 Kontuz "bezala"rekin.

* Gaizki: *Artzain bezala dabil mendian. Kepa soldadu bezala joan zen Ameriketara.*

Ongi: *Artzain dabil mendian. Kepa soldadu joan zen Ameriketara* (benetako soldadua zen). *Asier apaiz bezala dabil elizan* (ez da benetako apaiza, mozorroturik, jendea engainatzekotan dabil).

7 "Bota" sarriegi erabiltzen da, esaldiak beste aditz bat eskatzen duenean.

* Gaizki: *Andregai bota. Siesta bota. Tiroa bota. Ostikoa bota. Begirada bota...*

Ongi: *Andregai egin. Siesta egin. Tiroa tiratu. Ostikoz jo. Begirada bat egin...*

8 "Ere" gaizki ipintzen da perpausetan. "Ere" galdegaiari lotu behar zaio. Ikus zein alde den:

Ama ere alabarekin etorri zen atzo. Ama alabarekin ere etorri zen atzo. Ama alabarekin etorri ere zen atzo. Ama alabarekin etorri zen atzo ere. Hauxe ere ongi dago: *-Ama etorri al zen? -Bai. -Eta alaba? -Baita ere.*

9 Ez nahas "-(e)nez/-(e)nez gero". "(e)nez" formak iritzia adierazten du; "(e)nez gero" k, ordea, kausalitatea. Horra bi adibide: *Amak esan duenez, alaba gaixorik dago* (iritzia). *Amak esan duenez gero, nik sinesten dut* (arrazoia).

10 Perpausa nagusiaren sujetoa ez lotu menpeko perpausari.

* Gaizki: *Artzaia mendira joatekotan, azeria ikusi zuen.*

Ongi: *Artzaiak, mendira joatekotan, azeria ikusi zuen.*

11 "Zehar". Zazpi probintzietan orain arte ez da denborarekin erabili.

* Gaizki: *Urtean zehar horrek sagar asko jaten du.*

Ongi: *Urte barruan horrek.../Urte(re)n buruan horrek...*

12 "Begiratu" aditzak datiboa eskatzen du "mirar" esateko. Akusatiboan, "zaindu" esan nahi du. Mugaz bestaldean ez dute "zaindu" erabiltzen, "begiratu+akusatibo" baizik.

Amak haurrari begiratu dio (ikus, so egin).

Amak haurra begiratu du (zaindu).

13 "Menperatu"="azpiratu", "hankapetu".

* Gaizki: *Euskara ongi menperatzen du.*

Ongi: *Horrek euskaraz ederki, zoragarri, ikusgarri egiten du./Euskaldun garbia da.*

14 Adi egon "eskerrak" erabiltzean.

* Gaizki: *Eskerrak hori etorri zela/Eskerrak hori etorri zenari/Eskerrak hori etorri zela.*

Ongi: *Eskerrak hori etorri zen/Beharrik etorri zen* (Baztanen eta mugaz bestaldean).

15 Sintagma zuzena "ur edan", "patxaran edan", "sardina jan" dira. Kantitatea aurrean ipini behar da.

* Gaizki: *Tomate kiloak 400 pezeta balio du.*

Ongi: *Kilo tomatek 400 pezeta balio...*

Ikusi segidako adibideak:

Tomate kaja bat (kaja hutsa dago) *zimaurretzira bota.*

Kaja bat tomate (kaja bete dago) *jan zuten.*

16 Kontuz "mantendu" aditzarekin.

* Gaizki: *Bere hitza mantendu zuen. Ministroak sindikatoekin elkarriketak mantendu ditu.*

Ongi: *Bere hitzari eutsi zion/Bere hitza atxiki zuen. Ministroak elkarriketak izan ditu sindikatoekin.*

17 "-Ura" bukaera duten hitzetan "-a" organikoa gordetzen da zazpi probintzietan.

* Gaizki: *Kultur mintegia. Arkitektur lanak. Tristur malkoak.*

Ongi: *Kultura mintegia. Arkitektura... Tristura...*

18 "Egoera" hitza sarriegi eta behar ez denean erabiltzen da.

* Gaizki: *Gaisoaren osasun egoera larria da* (El estado de salud del enfermo es grave).

Ongi: *Gaisoa oso gaizki dago/Gaisoa oso larri dago/Eri handi da* (mugaz bestaldean).

19 Bereiztu zehargalderak eta baldintzazkoak.

* Gaizki: *Ez dakit etorriko bada.*

Ongi: *Ez dakit etorriko ote den/Ez dakit jinen dene(nt)z* (mugaz bestaldean).

20 Ez nahas "balio" eta "balore". "Balorea" ausartzia da eta maiz lotsagabeentzat erabiltzen da.

* Gaizki: *Urreak balore handia du.*

Ongi: *Urreak asko balio du. Horrek dik balorea!* (lotsagabea).



Gotzon Garate

Deustuko Unibertsitateko irakaslea